



ITSASOKO-LEHORREKO JABARI PUBLIKOA OKUPATZEKO EMAKIDA ESKAERA

(A)	ESPEDIENTE ZK.	AURKEZPEN ERREGISTROA Administrazioan	SARRERA ERREGISTROA Organo/erakunde eskudunean
-----	----------------	--	---

ESKATZAILEAREN DATUAK			
Izen-abizenak:		NAN / IFZ / AIZ / Pasaportea:	
MÓNICA PEDREIRA LANCHAS		XXX3538XX	
Bere izenean edo honako hau ordezkatzu			
Izen-abizenak edo sozietate-izena ⁽¹⁾ :		NAN / IFZ / AIZ / IFK ⁽¹⁾ :	
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA		P2000000F	
Jakinarazpenetarako datu hauekin:			
Hiribidea/kalea/plaza, ataria, zenbakia:	Udalerria:	Lurralde Historikoa:	Posta kodea:
Gipuzkoa plaza 1	DONOSTIA	GIPUZKOA	20004
Telefonoa:	Helbide elektronikoa:		
943112915	negia@gipuzkoa.eus		

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:	
Ezaugarri hauek dituen itsasoko-lehorreko jabari publikoa okupatzeko EMAKIDA ADMINISTRATIBOA ematea nahi duela:	
Udalerria:	ORIO, ZARAUTZ, ZUMAIA, DEBA, MUTRIKU
(Udalerrri batekoa baino gehiagokoa bada, zerrendatu udalerrri horiek, probintzia adieraziz): ⁽³⁾	IO, ZARAUTZ, ZUMAIA, DEBA, MUTRIKU (GIPUZKOA)
Kokapena edo parajea:	Antillako hondartza, Zarauzko hondartza, Santiagoko hondartza (Zumaia), Itzurungo hondartza, Debako Santiago eta Lapari hondartzak, Ondarbeltz hondartza eta Saturrarango hondartza
Okupatzen duen azalera (m ²):	150
Jarduera, xede edo helburu hau gauzatzeko:	Hondartzen garbiketa zerbitzuko zaborrontzi-puntuak jartzeko uda denboraldian
Jarduera zer epetan egin nahi duen (urteak):	2026/06/01-2029/09/30 (zaborrontziak uda denboraldian ekainaren 1etik irailaren 30ra jartzen dira soilik, eta Aste Santuan 10 egunez, udako kanitatearekin)

Eskatzaileak aipatu nahi dituen BESTE datu / ohar batzuk	
(D)	<p>Gipuzkoako Foru Aldundiaren hondartzen garbiketarako zerbitzuaren baitan urtero udako denboraldian zakarontziak jartzen dira, 2020tik hondarretatik kanpo. Antilla (Orio), Zarauzko, Santiago (Zumaia), Itzurun (Zumaia), Santiago eta Lapari (Deba), Ondarbeltz (mutriku) eta Saturrarango (Mutriku) hondartzetan zaborrontzi-puntuak itsas lehorreko jabi publikoaren baitan jartzen dira, atxikitako planoan adierazitako kokapenetan. Hondartza bakoitzean jartzen diren zaborrontzi-puntuak honakoak dira, aintzat hartuta puntu bakoitzean 4-7 zaborrontzi bitarte jarriko direla, nahiz eta zaborrontzi kopurua zerbitu aldatu daitekeen behararren bat (baten bat gehitu edo kendu):</p> <ul style="list-style-type: none"> -Antilla: 4 puntu -Zarauz: 8 puntu - Santiago Zumaia: 3 puntu -Itzurun: 3 puntu -santiago deba 7 puntu + Lapari 2 puntu -ondarbeltz: puntu 1 - Saturrarango: 2 puntu Urteroko jardueraren denez, eskaera egiten da baimena 4 urterako emateko (2026, 2027, 2028, 2029), urtero zaborrontziak jartzeko guztira 30 puntutan, ekainaren 1etik irailaren 30era, eta Aste Santuan 10 egunez (udako kopuruaren %60).

ESKATZEN DU:	
(E)	<p>Eta, horregatik, Kostaldeko 1988ko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 64. artikuluan eta hurrengoetan eta Kostaldeko Araudi Orokorra onartzen duen 2014ko urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretuaren 131. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera, sinatzaileak ADIERAZTEN DU eskatzaileak ez duela Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legean aurreikusten den kontratatzeke debekurik eta, dagozkion izapideak egin ondoren, aurretik aipatutako itsasoko-lehorreko jabari publikoko eremua okupatzeko EMAKIDA ADMINISTRATIBO bat ematea ESKATZEN DU.</p> <p>Donostian (e)n, 2026 (e)ko Mayo aren 5 ean</p> <p>Sinadura: MONICA PEDREIRA LANCHAS - 441353825 Firmado digitalmente por MONICA PEDREIRA LANCHAS - 441353825 Fecha: 2026.05.05 13:28:35 +02'00'</p>

HARTZAILEA:	
(F)	<p>Eusko Jaurlaritzaren Itsasertzaren Garapenaren, Portuen eta Itsas Gaien Zuzendaritza Gipuzkoa <input checked="" type="checkbox"/> Lurralde-Zerbitzua</p>

OHARRA: Datuak bete aurretik, irakurri dokumentuarekin batera jasota dauden jarraibideak

AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA (jarri X bat eskaerari gehitutako dokumentazioari)	
	<input type="checkbox"/> NANaren kopia.
	<input type="checkbox"/> Erakundearen eratzte-eskritura.
	<input type="checkbox"/> Eskabidea izenpetzen duenaren ahalordea, edo jardungo duen ordezkariaren behar adinako akreditazioa.
	<input type="checkbox"/> "Oinarrizko proiektuaren" bi ale paperean eta beste bat digitalean.
(G)	<input type="checkbox"/> "Eraikuntza-proiektuaren" bi ale paperean eta beste bat digitalean.
	<input type="checkbox"/> Azterketa ekonomiko-finantzarioa.
	<input type="checkbox"/> Behin-behineko bermea eratu izanaren egiaztatzea.
	<input type="checkbox"/> Ingurumen-inpaktuaren azterketa.
	<input type="checkbox"/> Klima-aldaketaren azterketa.
	<input checked="" type="checkbox"/> Beste dokumentu batzuk ⁽²⁾ : Zaborrontzi-puntuen kokapen planoak

ONARTZEN DUT, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015, Legearen 28.2 artikulua arabera, Eusko Jaurlaritzaren Itsasertzaren Garapenaren, Portuen eta Itsas Gaien Zuzendaritzak eskaera honetan emandako datuak kontsultatuko dituela eta ebazteko beharrezkoak diren dokumentuak jasoko dituela, bere sare korporatiboaren bidez edo datuen bitartekaritzarako plataformak edo horretarako ahalbidetutako beste sistema elektronikoko batzuk kontsultatuz.

Kontsulta horien aurka egonez gero, markatu laukia, eta kasu horretan, eskariarekin batera entregatu beharko duzu jarraibideetan zehazten den dokumentazio guztia.

ITSASOKO-LEHORREKO JABARI PUBLIKOA OKUPATZEKO EMAKIDA ADMINISTRATIBOAREN ESKAERA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

I. ARGIBIDE OROKORRAK.

- Inprimaki hau eskuragarri dago itsasoko-lehorreko jabari publikoa okupatzeko emakida administratiboa eskatzeko interesa dutenentzat, Kostaldeko 1988ko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 64. artikuluan eta hurrengoetan jasotakoaren arabera.
- Idatzi letra larriz, eta ziurtatu datuak argi eta garbi irakur daitezkeela.
- Azalpen zabalagoa egin nahi baduzu, inprimaki honi egokituz jotako behar adina orri gehi diezazkiokezu; kasu horretan, sinadurak orri guztietan agertu beharko du.
- Eskaera Administrazioan noiz aurkeztu den egiaztatzen duen agiria jaso nahi baduzu, aurkeztu bi kopia..
- Ez ahaztu inprimakia sinatzea.

II. INPRIMAKIA BETETZEKO ARGIBIDE ESPEZIFIKOAK

(A) ATALA. Administrazioak bete beharrekoa.

(B) ATALA. (1) Ordezkariaren datuak, eskatzailea beste pertsona fisiko edo juridiko baten ordezkaria denean soilik bete beharrekoa.

(C) ATALA. Atal honetan, eskatzaileak bere eskariaren datuak adieraziko ditu eta zehazki hauek: okupazioa zer udalerritan egongo den; kokapena edo parajea (adibidez: "x" hondartza, "y" itsas-pasealekua, "z" parajea); okupazioaren gutxi gorabeherako azalera; eta jarduera, xedea edo helburua (adibidez: taberna-jatetxe bat eraikitzea eta ustiatzea, kolektorea gauzatzea...).

(D) ATALA. Atal honetan, eskatzaileak beste datu edo ohar batzuk gehitu ditzake nahi badu.

(E) ATALA. Inprimakia bete deneko tokia eta data beteko du eskatzaileak, eta eskaera egin duenaren sinadura.

(F) ATALA. Emakida kokatuta dagoen Lurralde Historikoaren izena beteko du eskatzaileak.

(G) ATALA. Eskatzaileak "X" bat jarri beharko dio eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioari.

⁽²⁾ Zerrendan ageri ez diren dokumentuen kasuan, jarri "X" bat "Beste dokumentazio bat" atalean, eta bete ondoren horien izena.

Ikusi hurrengo atala eskatzaileak aurkeztu beharreko dokumentazioaren xehetasun gehiago jakiteko.

III. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Eskaera bete ondoren, dokumentu hauekin batera aurkeztuko da:

Kasu guztietan:

- a. Oinarritzko proiektuaren edo, hala badagokio, eraikuntza-proiektuaren hiru ale (bi paperean eta beste bat formatu digitalean), Kostaldeko 1988ko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 42. artikulua eta hurrengoek eta Kostaldeko Araudi Orokorra onartzen duen 2014ko urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretuaren 85. artikulua eta hurrengoek jasotzen duten moduan. Oinarritzko proiektuak, edo hala badagokio eraikuntzakoak, honako dokumentu hauek izango ditu gutxienez, eta teknikari eskudunak sinatu beharko du:
- Justifikazio- eta deskribapen-memoria, eranskinekin, hala badagokio. Bertan, espresuki zehaztu beharko da Kostaldeen buruzko Legean eta aplikatu beharreko gainerako arau espezifikoetan xedatutakoa betetzen dela, bai eta proiektuaren alderdirik garrantzitsuenak eta oinarritzkoenak, lanak gauzatzeko programa eta, dagokionean, hondakin-urak husteko sistema ere.
 - Planoak: Kokapen-planoak, kokapenaren araberrako eskala egokian, mugaketa eta okupatu beharreko eremua adierazita (1/5.000 eskalan gutxienez), ingurunearen sailkapena eta hirigintza-erabilerak adierazita; egungo egoeraren plano topografikoa (1/1.000 eskalan gutxienez); goitiko bista orokorra (proiektatutako instalazioak eta obrak jasota izan beharko ditu, eta itsasoko-lehorreko jabari publikoan erabili edo okupatu beharreko mugaketa eta azalera, itsasertz-lerroak, igarotzeko bide-zorrak, babesak eta sarbideak eta, hala badagokio, eragindakoen berrezarpena eta itsas-lurreko domeinu publikoan gehitu beharreko lurak zehaztuta izan beharko ditu; altxaeren eta sekzio bereizgarrien planoak, horiek definitzeko beharrezkoak direnean, obren eta instalazioen geometriarekin.
 - Eremuaren argazki-informazioa.
 - Aurrekontua, obra-unitate eta kontu-sail adierazgarrien balorazioarekin.
- b. Kostaldeko 1988ko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 74. eta 88. artikuluetan ezarritako aldi baterako fidantza eratu izanaren egiaztagiria. Fidantza hori itsasoko-lehorreko jabari publikoan egin beharreko obrak eta instalazioak gauzatzeko aurrekontuaren % 2koa izango da.

Hala dagokionean:

- c. Eskatera pertsona juridiko baten ordezkari gisa egiten bada, erakundearen eratze-eskrituraren eta ordezkariaren ahalordetze-eskrituraren kopia legeztatuak aurkeztu beharko dira. Jatorritzko eskriturak eta kopia sinpleak ere aurkeztu ahal izango dira, aurkezteko unean bertan alderatzeko. Pertsona fisiko baten izenean jardunez gero, ordezkari gisa egiaztatu beharko da, zuzenbidean baliozkoa den edozein bide erabiliz, fidagarritasunez jasota gera dadin.
- d. Azterketa ekonomiko-finantzariora Administrazioaren kudeaketa zuzena aurreikusten ez den kasuetarako, Kosta Legearen 42.4 artikulua eta bere Araudiaren 87 eta 89. artikuluen arabera, ustiapenaren balizko bilakaera garatzeko, Kosta Legearen Araudiaren xedapenekin bat datozen amortizatzeko epeentzako aukerak aintzat hartuz. Azterketak honakoa jasoko du:
- Aurreikusitako diru-sarreraren zerrenda, publikoak ordaindu beharreko tarifekin eta, hala badagokio, diru-sarrera horiek osatzen dituzten faktoreen banaketa, etorkizunean berrikuspenak egiteko oinarri gisa erabili ahal izateko.
 - Gastuen zerrenda, proiektuen eta obren gastuak eta ordaindu beharreko kanonen eta zergen gastuak barne, bai eta kontserbazio-gastuak, energia-kontsumoarekin lotutako gastuak, langileen gastuak eta ustiatzeko beharrezkoak diren beste gastu batzuk ere. Gainera, baldin badaude, ezarri beharreko neurri zuzentzaileen ondoriozko kostuak gehituko dira, bai eta neurri horien eraginkortasuna egiaztatzeko jarraipen-planaren ondoriozko gastuak ere.
 - Errentagarritasun garbiaren ebaluazioa, zergen aurretik.
- e. Oinarritzko proiektuak, edo hala badagokio eraikuntza-proiektuak, honakoa izan beharko dute gainera:
- Natura 2000 Sareko espazioetan edo ingurumena babesteko neurriak dituzten beste edozeinetan izan dezakeen eragina. Eragin hori gerta daitekeen proiektuetan, aurreikusitako jarduera-eremuaren azterketa bionomikoa gehituko da, bai eta 500 metroko zabalerako inguruko eremuarena ere (Kostako Araudiaren 88.e artikulua).
 - Proiektatutako jarduerak itsasoko-lehorreko jabari publikoan aldaketa handia eragin badezakete, aldeztu beharko dira horren gaineko eraginaren ebaluazioa aurkeztuko da. Ebaluazio horretan, proiektatutako jarduerak gauzatzean eta ustiapenean izango duten eragina aztertu beharko da eta, hala badagokio, beharrezko neurri zuzentzaileak ere jaso beharko dira (Kosta Legearen Araudiaren 85.2. artikulua).
 - Klima-aldaketak egin beharreko edo egindako obraren lurzoruen gainean izan ditzakeen balizko eraginaren ebaluazioa jaso beharko du proiektuak, Kostako Araudiaren 92. artikulua ezartzen duen irismenarekin.

- iv. Proiektatutako jarduerak itsasoan edo itsasoko-lehorreko eremuan esku-hartzeak egiteko aurreikuspenak jasotzen badituzte, itsasertzeko dinamikaren oinarrizko azterketa aurkeztu beharko da, Kosta Legearen 44.3 artikuluan eta bere Araudiaren 91.3 eta 93 artikuluetan xedatutakoaren arabera.
- v. Eskatzaileak 1988ko uztailaren 28ko 22/1988 Kosta Legearen 68. artikuluan eta bere Araudiaren 138. artikuluan jasotzen den moduan, aldi baterako okupazioa edo indarrez desjabetzea dela-eta, eragindako ondasunak edo eskubideak “erabilera publikotzat jotzeko” eskatzen badu, eranskin bat aurkeztuko da eragindako ondasunen eta eskubideen zerrendarekin eta horiek ordaintzeko edo doiesteko estimatutako zenbatekoarekin.
- f. Araudi aplikagarriak hala eskatzen badu, ingurumeneko informazio estrategikoaren emaitza eta ingurumeneko ingurumen- inpaktuaren azterketa edo ingurumeneko dokumentua entregatuko dira, ingurumena ebaluatzeko 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6, 35 eta 45 artikuluetan edo analogoetan definitutakoaren arabera.
- g. Eskatzailea ez bada Espainiako herritarra, 1988ko uztailaren 28ko 22/1988 Kosta legearen 74.2 artikulua eta bere Araudiaren 153 eta 154 artikuluek eskatutako dokumentazioa egiaztatu beharko du.

IV. ESKAERA AURKEZTEKO LEKUA.

Eskaera bete ondoren, okupazio-eskaera egin nahi den Lurralde Historikoko Lurralde-Zerbitzuari igorriko zaio, eskatutako dokumentazioarekin batera. Administrazio publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean adierazitako edozein bitartekoren bidez eta bere 16.4. artikuluan aipatutako bulegoetan aurkez daiteke.

ITSASOKO-LEHORREKO JABARI PUBLIKOA OKUPATZEKO EMAKIDA ADMINISTRATIBOA TRAMITATZEKO PROZEDURAREN BALDINTZAK ETA OINARRIZKO EFEKTUAK.

I. ESKATZAILEAREN NAZIONALITATEA.

Emakiden titularrak izan daitezke honako hauek, 1988ko uztailaren 28ko 22/1988 Kosta legearen 74.2 artikulua eta bere Araudiaren 153 eta 154 artikuluek ezarritakoaren arabera:

- Espainiako herritarrak.
- Europar Batasuneko Estatu Kideetako nazionalitatea duten atzerritarrak, ordena publikoaren, segurtasunaren eta osasun publikoaren arrazoiengatik ezar daitezkeen mugak gorabehera.
- Europar Batasuneko Estatu Kideetako nazionalitatea ez duten atzerritarrak, haien jatorrizko herrialdetan espainiar nazionalitatea duten pertsonetik elkarrekikotasuna frogatuz gero. Nolanahi ere, baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - Egoitza fiskala Espainian izatea.
 - Estatuko kontratuen legeak **atzerritarrak kontratatuzko eskatzen dituen baldintzak betetzea.**
 - Esleitzen zaion titulu administratibotik eratorritako edozein gertaeraren kasuan Espainiako auzitegien jurisdikzioaren mende geratzen dela adieraztea.

II. TRAMITAZIOAREN GASTUAK.

Beharrezkoa da jakinaraztea itsasoko-lehorreko jabari publikoaren okupazioaren emakida administratiboaren eskatzaileak ordainduko dituela tramitazioaren gastu hauek eta zenbatekoa araudi aplikagarriaren arabera zehaztuko dela:

- Proiektuak eta eskatutako emakida tramitatzeko beharrezkoak diren gainerako dokumentuak prestatzeko eta idazteko kostuak.
- Aldi baterako fidantza eta beste berme batzuk eratzearekin lotutako gastuak, 1988ko uztailaren 28ko 22/1988 Kosta Legean eta bere Araudian ezarritakoak.
- Dagozkion administrazio-tasak, besteak beste, 1988ko uztailaren 28ko 22/1988 Kosta legearen 86. artikuluan eta artikulua hori garatzeko 735/1993 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera:
 - Aurkeztutako proiektuak aztertzeko tasa.
 - Azterketak edo dokumentu teknikoak entregatzea, interesdunak hala eskatuz gero.
 - Mugaketak, zedarritzeak eta beste jardunbide tekniko eta administrazio batzuk, eskatzaileek hala eskatuz gero.
 - Dokumentuen kopia eta ziurtagiriak.
- Informazio publikoa eta argitalpenak tramitatzetik eratorritako gastuak, Kosta Legearen 42.3 eta 74 artikuluetan eta bere araudiko 86 eta 152 artikuluetan jasotakoak.

III. PROZEDURARI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA.

- Derrigorrezko edo eskaeraren datu edo dokumenturen bat ez bada behar bezala aurkezten, akatsen berri emango zaie eskatzaileei, helegiteak formulatzeko edo akatsak zuzentzeko hamar (10) egun balioduneko epean, eta azalduko zaie hori egin ezean, eskaria bertan behera geratuko dela eta ebazpen horren berri emango diela interesdunei, Kosta Araudiaren 75 eta 152.4 artikuluetan ezarritakoaren arabera.
- Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, Itsasertzaren Garapena, Portuak eta Itsas Gaien Zuzendaritzaren bidez, irizpideak jarraituz ebatziko du eskatutako emakida ematea. Hala ere, Administrazioa ez dago derrigortuta emakida ematera eta ukatu egin dezake behar bezala arrazoitutako interes publikoko arrazoiengatik (1988ko uztailaren 28ko 22/1988 Kosta Legearen 35.2 artikulua eta bere Araudiaren 77 eta 152.12 artikulua).
- Emakida-espeditenteak ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da eta epe hori igarotakoan ez bazaie interesdunei ebazpena berriaz jakinarazi, dagokion eskaera baztertuta geratuko da administrazioaren isiltasunagatik, Kosta Araudiaren 75.2 eta 152.13 artikuluetan eta Administrazio prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 24.1 artikuluaaren arabera.
- Emakidaren ebazpenarekin amaituko da bide administratiboa eta errekurtsoa jarri ahal izango da ebazpenaren berri eman eta hurrengo egunetik hasita, Kosta Araudiaren 152.14 artikuluaaren, Administrazio prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen eta 2003ko abenduaren 17ko 58/2003 Zerga Lege Orokorren arabera:
 - h. Interesdunak administrazio publikoak ez badira:
 - Hautazko berraztertze-errekurtsoa Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailburuaren aurrean, hilabete bateko (1) epean.
 - i. Interesdunak administrazio publikoak badira:
 - Aurretiazko errekerimendua, hautazkoa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan ezarritako moduan eta epean.
 - j. Bi kasuetan:
 - Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi (2) hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Salan.
 - Desadostasuna ezarritako kanonarekin baldin badago soilik:
 - Hautazko berraztertze-errekurtsoa Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailburuaren aurrean, hilabete bateko (1) epean.
 - Erreklamazio ekonomiko-administratiboa zuzenean Euskadiko Ekonomia Arduralaritzako Epaitegiaren aurrean, hilabete bateko (1) epean.